



Blas de Lezo atzealdeko lanak amaitzean. - 193.800 eurotako aurrekontua izan du udalak Blas de Lezon konponketa lanak egiteko eta bi hilabete luzeko iraupena izan dute. Herritarren eskaera izan dira konponketa hauek denbora luzez kale honetako aparkalekuen arazoa behin baino gehiagotan salatu ondoren. Udalak konponketa hauek egingo zituela agindu zuen eta atzerapenarekin iritsi arren, konponketak dagoeneko ia bukatu dira. Alde batetik oinezkoak babesteko beharrezko neurria duten espaloiak diseinatu dira, bai Michelin kirol gune aldean aparkalekuetako sarrerak nahiz etxebizitzaren aldean orain dela gutxi eraiki diren igogailuen inguruak kontutan hartuta. Bestetik, euri urak jasotzeko sare berria egin da aparkalekuen sarreretako espalo berriei ura barrura ez sartzeko. Argiteria berria, egun hauetan jartzekoa dira. Kasu honetan kontsumo baxuagoko LED teknologia dutenak izango dira. Konponketa hauekin bizilagunek espero dute orain arteko arazoak konpontzea eta pozik azaldu dira lanekin. Inguruak beste itxura bat hartu duela, txukunagoa diote bizilagunek.

3 UDALA

Polizia operazioaren aurkako mozioa aurrera atera zen

Ohiko udalbatzarra izan zen astearte arratsaldean. Alderdiak eztabaidatzeko zituzten hiru gaiak onartu egin ziren. Aipatzekoa da aurreko asteko polizia operazioa gaitzetsi zutela EA) eta Bilduren aldeko bozketekin eta LOHP, PSE-EE eta Marisa Zubiriren abstentzioarekin. PPK aurka bozkatu zuten.

4 IKASTAROK

Emakumeen zentroan ikastaro eskaintza berria

Lehenengo hiruhilabetekorako hainbat ikastaro eta tailer antolatu dira Emakumeen Zentroan. Honetan jarduerak ezberdinak egiteko aukeraz gain, hausnarketara bideratutakoak ere antolatu dira eskaeraren arabera egingo direnak. Izena ematea urtarilaren 22tik aurrera.

5 ELKARRIZKETA

Jone Artola Titare jostintza taldeaz

Jone Artola jostunak gidatzen du Ttakunek antolatutako Titare jostintza taldea. Jantzi tradizionalak egiteko ikastaroak izandako arrakastaren ondorioz sortu berri da. Urte osoan zehar egingo du lan eta dagoeneko adin ezberdinetako hamabost emakume bildu ditu. Mutilak nahi dituzte.



Bideo Lagunak
Tien 21
Etxekotesna elektrikoetan adituak

Orain ere eskaintza hobereana dugu tablet eta mugikorretan, pasa zaituz eta ikusi

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel.: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

OTEGI
SAGARDOTEGIA
SOLLAENEA BASERRIA

18an (larunbata honetan) irekitzen dugu, TXOTX GARAI!

Zabaleta auzoa · LASARTE-ORIA · Tel.: 943 365029

Neure kabuz



Asier Odriozola
Aldapak

Urtarrilean bete bete gauden honetan, ez zait iruditzen aldapak aipatzea lekuz kanpo dagoenik. Sasoi batean hitzetik hortzera erabiltzen genuen urtarileko aldapa baina azken aldiak gutxiago. Bateren batek pentsa lezake seinale ona dela hori, lehen malda gora zena ordeka bihurtu denaren seinale. Bai zera! Gertatzen da urteak daramatzagula krisi madarikatu baten liseriketan eta lehen urtarileko aldapa zena orain urte osoko ezina dela. Ezta uztaileko tourrean ere hainbeste horma!

Hala ere, eta txirindularitza bidenabar aipatu dudanez, ametitu beharra daukat maldarik malda ibiliz ohitu egiten dela gorputza ahalegin horretara. Pedalei emanez bezala, berdin beste edozein kiroletan: gorputza jarri egiten da zailtasunera. Eta errezeloa daukat hori ari zaigula gertatzen garai zail hauetan, itsu itsuan aurrera egiten ari garela, mandoek egiten duten moduan.

Baita, urtarillik zailenean ere, Athleticcek derbia galdu duen urte hasiera goibel honetan alegia. Iritsiko da igotzen ari garen bidea jais-teko unea. Horren zain jarrita gaude batzuk.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Harremanetarako telefonoa: 649 526 766.
- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidean. Merkea. 648 614 769

Salerosketak

- Solarium bertikala saltzen dut, lanpara berrieekin. Prezio onean eta negoziagarria. Tel.: 678 582 706 edo 943 370980.

Lan-eskaintza

- Adineko pertsonen lan egiten duen enpresa lan-poltsa osatu nahi du. Interesatuak harremanetan jartzeko 634 409 703 edo lanpoltsa3@gmail.com.

Zorion agurrak



Maider

ZORIONAK! SEI MUXU POTTOLOAITATXO ETA AMATXOREN PARTETIK. ASKO MAITE ZAITUGU



Haizea

Zorionak bonbon, pastelak zure kontu. Muxu pila familiaren partetz!



Irati

Zorionak printzesa ondo pasa zure egunean. Txokomarrubizko bost muxu goxo familiaren partetik.



Arantza

Zorionak! Zure eguna ongi igaro izanar espe-ro dugu. Takun elkar-teko kide eta familiaren partetik.



Enaitz

Zorionak Txapeldun!! Zazpi txokolatetzko muxua. Ono pasa zure eguna. Elai ta Aitaren partetik. Maite zaitugu.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, [txintxarri@txintxarri.info](http://txintxarri.com) edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.



Jarrai gaitzazue txintxarri.info eta twitter eta facebook kontuetan ere

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Asier Gomez, Martinez, urtarrilak 10.
- Ivanna Marcela Rodriguez Vilchez, urtarrilak 8a.
- Asier Mesa Bocos, urtarrilak 4.

Heriotzak

- Magdalena Moyano Arias, urtarrilaren 11an, 90 urte zituela.
- Jose Amondarain Amondarain, urtarrilaren 11an, 88 urte zituela.
- Irene Oyarbide Tricio, urtarrilaren 9an, 57 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 17	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Larunbata, 18	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 19	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 20	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 21	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 22	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 23	Urbisondo, San Frantzisko 1	943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udalzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Etzagire, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñica, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mañu Amuti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Polizia operazioa gaitzetsi zuen Udalbatzarrak

Abortu legearen aurreproiektuaren aurka azaldu eta PSE-EE eta PP-k hainbat galdera eta erregu egin zituzten

Ohiko udalbatzarra izan zen astearte arratsaldean. Alderdiek eztabaidatzeko zituzten hiru gaiak onartu ziren. Aipatzekoa da aurreko asteko polizia operazioa gaitzetsi zutela EAJ eta Bilduren aldeko bozkekin eta LOHP, PSE-EE eta Marisa Zubiren abstentzioarekin. PPK aurka bozkatu zuen.

TXINTXARRI

Urtarileko ohiko udalbatzarra izan zen asteartean. Urnieta eta Irungo ITV-etako enpresa batzordeak aurkeztutako mozioa eta ondoren, Bilduk aurkeztutako bi mozioa aztertu ziren, bata "emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsa" eskaera eta bestea Euskal Preso Politikoen Kolektiboarentzat bitartekari lanak egiten dituzten hainbat pertsonen atxilotari buruzkoa.

ITV-etako enpresa batzordeak zekarren mozioa aztertu eta inongo eztabaidarik gabe onartu egin zen, PP eta zinegotzi ez adskribituaren abstentzioarekin.

Honen bitartez, besteak beste, enpresa batzordeak erakundearen babesa eskatu du eta Urnieta, zein Irungo ITV-ek bizi duten blokeo egoerari irtenbideari emateko pausoko eman ditzan eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari.

Honetaz gain, "emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsa" eskaeraren bitartez, Bilduk PP-ko Gobernuak duen abortuaren aurreproiektuko legea gaitzestea, emakumearen ugalketarako autonomia eta eskubideak bermatzea

eta herritarrei mobilizazioetan parte hartzea eskatu zien, batik bat.

Gai honek Bildu, PSE-EE eta zinegotzi ez adskribituaren oniritzia izan zuen. PP-k aurka bozkatu zuen eta EAJ eta LOHP abstentitu ziren.

PP-ko Vanesa Velez zinegotziak aurreproiektu hau oraindik lanketa prozesuan dagoela gogoratu zuen eta aldatzeko izango dituela aditzera eman zuen.

Atxiloketak

Aipatu lege, Euskal Preso Politikoen Kolektiboarentzat bitartekari lanak egiten dituzten hainbat pertsonen atxiloketaz mintzatu eta mozioa onartu zen.

Bilduk aurkeztutako mozioari Osoko zuzenketa egin eta testu berria aurkeztu zuen batzarrean, "beste alderdiekin integrazio lanketa bat egin ostean".

Honetan atxiloketak gaur egun bizi den egoerari oztipo egiten diola adierazten da. Era berean, prozeduraren ebazpen judiziala lehenbailehen eskaintzea eskatzen da, baita euskal herritar guztien giza eskubide eta eskubide zibil eta politikoak errespetatzea ere. Eta herritarrei eta euskal gizarte osoari herritar horien eskubideen alde lanean



Urnieta eta Irungo ITV-etako enpresa batzordeko kideak eta herritarrek izan ziren astearteko Udalbatzarrean.

jarrai dezatela gonbidatzen die, "denok egin behar baitugu lan bakea erakitze eta imotzeko".

Gai honen harira, PP-ko zinegotziak Vanesa Velez salatu zuen berarekin ez zela testu hori adostu eta ez dagoela interesik PP hemen egoteko.

Oposizioaren galderak

Azkenik, galdera eta erreguen txanda izan zuten alderdiek. Honetan PSE-EE eta PP-k hartu zuten hitza.

PSE-EEK egindako galderetan azpimarragarria da, emakumeen zentroko erabiltzaileen kexa. Jesus Zaballosek adierazi zuenez, emakumeen ustez ez dago matrikula egiteko erreferentzia-zeko pertsonarik eta zentrorako sarzkeko zein kontrol eramango den ere galdetu zuen.

Herrian egon diren lapurreta, sute eta hainbat gertakizunen harira Udalak aurrera eramango duen protokoloa edo kooperazio

mailan irekia zegoen auditoriaren amaiera data jakin nahi izan zuen talde sozialistak, baita 2014 urteko aurrekontuen egutegia zein izango den ere.

PP-k berriz, herrian dauden kartelak kentzeko eskaera egin zuen zikinkerki hutsa delako, "berdin dit zer jartzen duen". Eta hirialtzarietan gobernu kide batek kartelak jarri izanaren berri baduen galdetu zuen.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak, Gorka Lizarragak emakume zentroaren funtzionamendu berria azaldu zuen, "parte hartze prozesu bat dago, emakumeek osatutako batzar bat eta haiek erabakitzen dute zein ikastaro aurrera eraman". Bestetik, zentroaren sarbideari dagokionez, agian Gaztelekuaren antzerako planteamendua egingo dela aipatu zuen.

Herrian azken aldian dauden gertaerei buruz, udaltzainak dituzten baliabideekin jarraipena

egiten dutela aipatu zuen alkateak. Hainbat kasuetan Ertzaintzarekin elkarlanean daudela eta dagokien protokoloa martxan dagoela aipatu zuen Pablo Barriok.

Bestalde, Estitxu Alkorkak Kooperazioko auditoriako ziri-borroka Gabonak baino lehen prest zegoela aipatu zuen eta Udalera noiz iritsi zain daudela azpimarratu zuen. Ostean, abokatuari helarazi eta honek gaia dagoen edo ez erabaki behar duela ere aipatu zuen.

Pablo Barrio alkateak berriz, 2014. urteko aurrekontuetan lanean daudela eta hauek martxo aldera onartzea espero duela aipatu zuen.

Eta PP-ko galderari erantzunez, "personek guztien adierazpen askatasunik gabeko erantzunak adierazi zuten.

PP eta PSE-EEKo zinegotziek zehaztasunik gabeko erantzunak ematea salatu zuten.

Hobari eta salbuespenak eskatzeko epea da

Ordenantza fiskal hauetan planteatutako hobariaren onuradun izateko eskaera egiteko epea astelehenean ireki zen eta eskaera ezaugarri guztiak betetzen dituztenak Villa Mirrentxura gerturatu beharko dira goizeko 9:00etatik 13:00etara bitartean.

Aurten, udal zerbitzuen eremuan tasen salbuespen eta hobarietarako dagokienez aldatuta handiak dituzte ordenantza fiskalak. Bertan, egoera ekonomiko kaxkarrean dauden bizikidetzako unitateak (bikote, familia,...) progresibitatean oinarritutako beharapen aukerak izango dituzte eta modu horretan ezarritako tasa baino murriztago bat ordainduko dute.

Horretarako, orain arte oso murriztaileak ziren diru-sarreraren mugak leundu egin-



go dira, neurri hauek aprobetxatzeko aukera pertsona kopuru handiagoak izan dezaten udalak adierazi moduan. Adibidez, RGIaren jasotzaileak (370 inguru) eta beraien familiek %100en salbuespenak erabaki dute tasa guztiak ordaintzeko.

Eta egoera hobean aurkitu eta beharrean dauden beste pertsona batzuek ere beraien diru-sarreraren arabera gutxiago

ordaintzeko aukera izango dute %75, %50 eta %25ean erregela berria modu progresibo batean aplikatuta.

Udalak orain artean erabiltzen zuten IPPREM erreferentzia taula baztertu eta horren ordez AES eta RGI laguntza ekonomikoak emateko erabili ohi diren Eusko Autonomi erkidegoko taulak izango dira oinarria aurrerantzean.

IRTEERA

Txuri urdin eta babarrun jana

Zabaleta Auzolaneko lagunek Txuri urdinera irteera antolatuta dute urtarrilaren 25erako, larunbata. Honetan parte hartu nahi duten ume eta gazteak auzoko plazan egon beharko dira goizeko 10:00etan.

Ondoren, babarrun jana antolatuta dute Xirimiri elkarteak. Honetan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da auzoko dendan eta azken eguna urtarrilak 23 osteguna izango da. Zabaletako bizilagunek bi ekintzetan parte hartzea deitzen dituzte bereziki auzotarrak.

DANBORRADAK

Herriko eskoletan danborhotsak

Urtero bezala San Sebastian eguna ospatzeko herriko ikastetxeek danborradak egingo dituzte. Astelehenean da eguna baina Lasarte-Orian gaur arratsaldean ospatuko dute herriko eskoletako haur eta gazteak. Ohi bezala dotore jantziko dira danborra gogoz astintzeko.

Sasoetako ikasleek eguraldi ona egitekotan patioan eskainiko dute emanaldia 16:00etan, eguraldi txarra balitz gimnasioan egingo dute. Zumaburuko txikiak plazara irtengo dira eguraldiak uzten badu 15:30ak aldera, bestela iaz bezala, eskolan bertan egingo dute. Landaberri-Garaikoetxeako ikasleek 16:00etan egingo dute danborrada eta ordu berean izango da Landaberriko erakinean dauden emanaldia.

Ikastaro eskaintza zabala Emakumeen zentroan

Otsailean hasi eta apirila bitartean gauzatuko dira ikastaro eta tailerrak

Lehenengo hiruhilabetekorako hainbat ikastaro eta tailer antolatu dira Emakumeen Zentroan. Honetan jarduera ezberdinak egiteko aukeraz gain, hausnarketara bideratutakoak ere antolatu dira hauek zentrotik azpimarratu moduan, eskaeraren arabera. Besteak beste, emakumeak historian, zer ote da feminismoa? eta Hezikidetzaz, umeen heziketaren gakoa. Ikastaroen iraupena otsailaren 3tik apirilaren 11ra izango da. Aurre-inskripzioa urtarrilaren 22tik 24ra 9:30etik 13:00etara eta urtarrilaren 23an 9:30etik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era egin ahal izango da.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako sexuen arteko bizikidetzarako Emakume Zentroak gizon-emakumeen arteko bizikidetzaz on baten sustapenerako udal jarduerak bul-tzatu nahi ditu.

Lasarte-Oriako herritar guztien gune bilakatu nahi du udalak "anitzta, plurala eta batez ere parekidea". Berdintasunaren alde "gurekin batera lan egin nahi duten pertsona guztientzat guneak sortuz".

Proiektu orokorrak kurso edo tailer ildo bat sortu duela diote zentrotik eta hauek datozen hilabetetan gauzatu dira bi gune ezberdinetan, Emakume Zentroan bertan eta Villa Mirentxun.

Ikastaroak

Eskaintzen diren ikastaroak yoga, kantua, konponketak eta patroiak, orratz lanak, bitxiak, antzerkia, eskulanak, euskara txokoa, batuka, Niretzako eta gainontzekoentzat emozionalki eraginkorrak diren zaintzak, inauterietako konpartsa, ehoziri-lanak, aerobic, Tai-Chi eta sabel dantza.

Bestalde, eskaeraren arabera tailerrak jarri dira

eskaintza zabaldu asmoz. Horrela aipatutakoaz gain, "Emakumeak historian", "Zer ote da feminismoa?", "Hezikidetzaz, umeen heziketaren gakoa", "Erotika eta sexualitateaz hizketan", "Zaintzaren agindua" eta "Jendearen aurrean hitz egin dezagun".

Hauetan honakoak jorratu direla azaldu dute zentrotik. "Emakumeak historian" esaterako, historian zehar egon diren "emakume erreferenteak aztertzen hasiko gara, Lasarte-Oriako emakumeen kontakizunen bitartez hemengo emakumeen historia erakitzen bukatzeko". Elkarteko gune bat sortu nahi da emakumeek euren historia propioa eraihi dezaten. "Zer ote da feminismoa?" saiotean berri, sexua, generoa, patriarkatua, sexu genero sistema, sozializazio berezia... bezalako terminoak aztertuko dira, "elkarren arteko harremanak, emakumeak eta gizak nola gizarteratzen garen, eta emakumeen egoera eta hauen posizioa eremu soziopolitiko eta kultural ezberdinetan ulertzea bilatuko du".

Esparru ezberdinak landu nahi dira ikastaro eskaintza berri honekin eta tartea egin zaio ere umeen heziketari. Egunerokotasunean gurega-



Dantza eta soinketako ikasleek iazko kurso amaierako erakustaldian.

natzen diren jokaera ezberdinak aztertuko dira eta hauen bitartez erreproduzitzen diren balio, rol eta estereotipoetan jarriko da arreta. "Denon erantzukizuna berdintasun harremanetan oinarritzen den elkarbizitza lortzea da, hau guztia nola identifikatu eta praktikara eramateko baliabide ezberdinak garatuko ditugu" diote zentrotik. Sexuak ere lekua izango du eta menopausiaz modu positiboan eta gorputz sexuatuaz hitz egingo da; "aukera erotikoei helduko diegu ere".

Zaintza egungo gizartearen gai nagusietako bat izaki, batez ere helduen zaintza, egoera honen inguruan hausnartzeko aukera izango da, "zer suposatzen du emakumeentzat, eskubidea edo obligazioa? kontutan izan behar da ia beti senide helduen zaintza emakumeek hartzen dutela euren gain horrek suposatzen duen guztiarekin".

Azkenik, jendearen aurrean hitz egiteko gaitasunari helduko zaio. "Guneen banaketa historikoak, prib-

tuak emakumeentzat eta publikoak gizonentzat, jendearen aurrean hitz egiteko emakume askorentzat zailtasunak eragin ditu. Ikastaro honetan zailtasunak aztertu eta landuko ditugu, gaintzeko. Praktikan jarriko ditugun teknika ezberdinak ere ikasiko ditugu".

Emakumeen zentrotik ikastaro eta tailerretan parte hartzeko deia egiten diete herritarrei. Adierazi moduan, hauetako batzuk ordua eta eguna zehaztua dute dagoeneko baina besteak, eskaeraren arabera eramango dira aurrera. Horregatik informazio gehiago eskuratzeko edota izena emateko, Emakumeen zentrotik pasatzeko eskatzen da. Besteak beste, ostegunean ez da ikastarorik aurreikusitako zentroa herriko elkartearen erabilerrako eguna delako eta ostiralean, soilik goizean sabel dantza ikastaroa dago aukeran.

Doakoak

Jardueretako batzuk, Batuka, Aerobic, Tai-Chi eta Yoga Villa Mirentxun egingo dira

eta ez Emakumeen Zentroan. Gainera, ikastaro batzuk doan dira; kantua, konponketak eta patroiak, orratz-lanak, bitxiak eta euskara txokoa. Matrikula ordaindu ez arren, izena eman beharko dela gogor-tzen dute. Gainontzekoak egin ahal izateko Lasarte-Orian erroldatua izan edo ez, 44 euro eta 66 euro bitarteko matrikulak ordaindu beharko dira. Jardueraren arabera salneurri ezberdinak jarri dira.

2014 urterako onartua den ordenantza fiskalaren arabera, ordainketa egiteaz salbuesita dauden pertsonen beharrezkoa izango dute dokumentazioa Villa Mirentxun aurkeztea.

Ikastaroen iraupena otsailaren 3tik apirilaren 11ra izango da. Aurre-inskripzioa urtarrilaren 22tik 24ra 9:30etik 13:00etara eta urtarrilaren 23an 9:30etik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era. Matrikulazioa, urtarrilaren 30ean 9:30etik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era eta urtarrilaren 31an 9:30etik 13:00etara egin ahal izango da.

Inauterietarako laguntza eta prestaketak

Inauteriak martxoaren 1 eta 2-ko asteburuan izango dira Lasarte-Orian eta jaia prestaz hasteko garaia iritsi da. Hau dela eta herriko elkarte eta taldeekin jaieren antolaketa lehenengo bilera egin zuen bertan Udalak Manuel Lekuonan.

Hilabete batzuk dira herri-tarrek udaleko ordezkariekin batera Inauterietako gaia musika izango zela erabaki zutela. Atzokoa eguna beraren egitza diseinatzen hasi ziren.

Diru-laguntzak

Udalak bere aldetik diru-

laguntzak atera ditu talde eta konpartsentzat.

Egoitza Lasarte-Orian duten pertsona fisiko eta juridiko publiko nahiz pribatuak izan ahal dira laguntzen onuradun, betiere interes orokorreko jardueraren bitartez egiten badute Inauteri Jaien esparruan.

Emango diren diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa aurrekontuetan zehaztuko da baina diru-laguntza bakoitzaren banakako zenbatekoak ezingo du gaintu bi mila eurotako kopurua, ez eta entitateak eskatutako kopurua ere.

Eskaera egiteko, diru-laguntzen eskatzaileen erregistro orokorrean alta eman beharko da. Horretaz gain, diru-laguntzarako eskabidea behar bezala osatu, inauterietan egingo den programaren edo jardueraren deskribapen zehatza eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua eta desfileen kasuan, proposatzen den ibilbidea zehaztu beharko dira.

Dena dela, aurkeztutako dokumentazioaz gain, udalak beharrezkoak jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal die taldeei aurkeztutako jardueraren edo programa hobeto baloratzeko xedez.



lazio gaia Munduko kulturak izan zen eta aurtengoa musika zentzu zabalean.

Eskabideak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean 2014ko urtarrilaren 20tik otsailaren 7ra bitarteko epean aurkeztu beharko dira.

Udalak aurkeztutako egitasmoen puntuaketa egiteko garaian, kontutan hartuko du

taldean izango den parte-hartzaile kopurua, festetarako programak edo jarduerak aurretik egin duen ibilbidea eta herrian duen errotze-maila, baita programaren koordinazioa eta aurrekontua ere, besteak beste.

Jone Artola Jostuna

"Oraindik jostea emakumeen gauza dela uste da"

Jone Artolak gidatzen du Ttakunek sortu berri duen Titare joskintza taldea

Urteetan Ttakunen jantzi tradizionalak egiteko ikastaroak izandako arrakasta ikusita, talde iraunkor bat eratu da, Titare. Jone Artola jostunak gidatuko du honen jarduna. Taldea aurreko astean hasi zen lanean eta gogotsu ekin dio gainera. Jone Artola oso pozik dago taldeak izan duen harrerarekin, hamabost lagun hasi dira eta dagoeneko hainbat erroka dituzte. Hala ere, mutirik ez zaie batu eta hauek animatzen ditu joskintza gertutik ezagutzera. Ostegunetan emakumeen zentroan elkartzen da taldea 15:00etatik 17:00etara.

Maider AZURMENDI

Jone Artolak 28 urte daromatza josten. Bere eskuetatik mota askotako oihala eta jantziak pasa dira. Hala ere, orain arte egindako lan berezienaz galdetuta ez dauka erantzunik, jantzi polit asko egin dituela dio eta garrantzitsuen egindako lanarekin pozik geratu izana da.

Titare talde sortu berriarekin gogotsu dago eta behin neska gazteak ere gerturatzea lortuta, bere pena bakarra da gizez korrik ez egotea "kuriosoena da moda diseinatzaile edo sastre famatuenak ia beti gizonak izaten direla".

Nolatan jostuna? Nondik datorkizu zaletasuna?

Txikitatik gustatu izan zait jostea. Izebak gaitasuna zeukan eta ni berarekin jartzen nintzen josten. Berak erakusten zidan nola egin eta horrela hasi nintzen. Gero Hernanin atera nuen titulua eta gaur arte.

Urte batzuetan josten ikasteko akademia ere izan nuen. Bertara etortzen ziren ikasleekin oso giro ona sortzen zen. Patroigintza lantzen genuen eta gauza errazak jostetik zailtasun handiagokoak egitea iristen ginen.

Titaren lan egiteko modua bestelakoa da. Diseinua denen artean aukeratu, patrioiak nik egiten ditut normalean eta ondoren, denen artean josten dugu.

Zein da egin duzun lanik bereziena?

Niretzako denak dira politak, konponketa soilak ere. Adibidez gaur goizean oparitu zidaten txamarra bat konpontzen bukatu dut. Jantzi eta esan dut, orain bai, horrela nahi nuen. Eta lan bikaina egin dudala iruditzen zait.

Bestalde baserritar jantzi

dotoreak egiteaz gain, ezkontza soineko asko ere egin ditut, nirea ere neuk egin nuen. Kasu horietan badirudi emaitzagatik lan bereziagoak direla baina orokorrean, ezin nuke bat esan. Urte asko dira eta oso gauza politak pasa dira nire eskuetatik.

Titare taldea jantzi tradizionalen ikastaroak izandako arrakastatik sortu da?

Bai, hala da. Ttakunek azken urteetan baserritar jantziak egiteko ikastaroa antolatuta du eta urtero-urtero taldea bete egin da. Behin ikastaroa bukatuta, askoren eskaera zen biltzen jarraitzearena eta azkenean, erabaki zen urtarrietatik aurrera Titare taldea osatu eta joskintza ikastaro iraunkorra izatea. Ni oso pozik nago.

Ikastaroaren arrakastari dagokionez. Nire ustez lortutako emaitzengatik izan da. Benetan lan politak egin izan ditugu eta jendea oso pozik geratu da beti egindakoarekin. Emaitza eder horiek ikusita, nolabait sortzen jarraitzeko gogoia ematen du. Gainera lanerako oso giro ona sortu da beti eta elkarlana erabatekoa izan da.

Zein izango da Titareren lana?

Herriko elkarteek dituzten beharrak nolabait asetzea da Titaren egin nahi dena. Momentu honetan Olentzero eta Mari Domingirentzat jantzi dotoreak prestatzen hasi gara.

Jantziak edota konponketak egingo ditugu. Aldi berean taldeko kideek euren arropa birziklatzeko lantxoak edota arropak ere egin ahal izango dituzte.

Taldean denak emakumeak zarete?

Bai, hori da pena ematen didan bakarra. Nazioartean izena duten diseinatzaile eta



Jantzi tradizionalen ikastaroa azaroan zehar egin zuten eta hau amaituta hasi ziren Titare sortzen.

sastre ia gehienak gizonetzakoak dira. Deigarria da oraindik nola halako taldeak emakumeek soilik betetzen dituzten.

Hala ere, orain arte josten moldatzen ziren emakumeak izaten ziren ikastarora etortzen zirenak eta hori bai aldatu da.

Erroka berria daukat Titaren dauden neska gazte batzuekin. Ez dakite ia ezer, lehenengo saioan botoi bat ondo josten ikasi zuten adibidez eta hauen poza izugarria izan zen, baita nirea ere.

Esan behar da, oso jende gutxi dakielako botoi bat ondo josten.

Erraza al da josten ikatea?

Ez da zaila eta halako talde batean gainera zailtasun maila kideek markatzen dute nolabait.

Lehen esan bezala, batzuek badakite josten eta horiek gauza zailagoak egin ditzakete baina errezak ere egin behar dira beraz, denentzako dago zeregina. Aipatutako gazteen kasuan, ziur nago asko ikasiko dutela saio gutxitan. Momentuz, gogo asko jartzen diote eta hori garrantzitsua da aurrera egiteko.

Hasi berriaren ilusio hori oso aberasgarria da talde lanean eta behintzat adin gutzietako emakumeak biltzea lortu dugu oraingoan. Mutirik besterik ez ditugu behar!

Gizonezkoek gainera ikuspuntu ezberdin bat izaten dute eta oso aberasgarria izango litzatekeela esango nuke. Taldea irekia da beraz,



28 urte egin ditu Artolak jostun lanetan eta oso harro dago egindako lan guztiez.

gogoia daukan gizon zein emakumeak gerturatzea dauka.

Oraindik joskintza emakumeen lana al da?

Bai, nik uste dut oraindik hori barneratuta dagoela eta josteara emakumearekin lotzen da beti.

Aldatzen joan behar dela uste dut eta edonorentzat josten jakitea gauza ederra dela iruditzen zait.

Esaten dute telesail baten eraginez modan dagoela berriz joskintza. Horrela dela uste duzu?

Bai, hori diote. "El tiempo entre costuras" liburuan oinarritutako telesaila da. Nik irakurritu daukat liburua eta esan behar dut ez dela guztiz erreala kontatzen dena. Askotan galdetzen nion nire buruari ea idazleak josten dakien.

Istorioan, protagonistak soineko ederrak egiten ditugu oso batean lan eginda. Nik gau asko eman ditut lanean eta oso zaila da, ia ezinezkoa, egun bakar batean

deskribatzen diren soinekoak bezalakoak hasi eta bukatzea.

Jostea lan nekeza da, ordu asko behar dira eta ez da beti azaltzen den bezain polita, perfektua.

Agian modan egon daiteke josten ikastearena baina nik uste dut krisiak eragin handiagoa duela joera honetan. Telebistak baino gehiago behintzat bai.

Krisia dela eta jendeak arropak konpontzen dituela uste duzu?

Noski. Etxe askotan ezin da lehen edo garai oparoetan bezain beste arropa erosi eta jendeak duena berrerabili behar du edo konpondu.

Josteko makina denda batean niri ere esan didate salmentek gora egin dutela, baina azken urte hauetako joera omen da eta ez azken hilabetetako hedabideetan duela ez hainbeste entzun dugun bezala.

Agian telebistaren eraginez, gazteei piztu dakieke josten ikasteko gogoia baina uste dut egoera ekonomikoak duela eragin gehiago.

ERRUGBIA.-

Durango garaile
intentsitate handiko
partidan

Beltzak Ostadar Gure Etxea taldeko gazteek Durangoren aurka jokatu zuten partida Larunbatean. Durangok 45-25 garaitu zuen Zarautz eta Lasarte-Oriako gazteez osaturiko taldea.

Partida arraroa eta dinamikoa izan zela aipatu digute Beltzak taldeko lagunek.

Lehen zatian, Durangok baloiaren jabetza bereganatu zuen eta Beltzak Ostadar Gure etxea 20 minututan haien jokoaren menpe egon zen eta 3 entsegu egin zituzten, 19-0.

24. minutuan, Unai Linazasorok lehen entsegua egin zuen eta orduan hasi zen Beltzak jokoan. Erritmo handiko minutuak izan ziren ostein eta atsedendian, 33 eta 17 zegoen markagailuan.

Bigarren zatian hasterakoan, Xalbategi ateratuta eta 3 puntu lortu zituen. Durangok ederki erantzun eta 38-20 jarri zuen markagailuan.

"Intentsitate handiko zatia zen, baina 17. minutuan joko geratu behar izan zen," jakinarazi digute. Durangon larrialdi bat zela eta, Osakidetza helikoptero bat lurerratu zen zelaian. 30 minutuz zain egon ziren taldeak eta epailea, baina azkenean partida bukatutzat eman behar izan zuten.

Era honetara, Durangok 45 eta 25 irabazi zion Beltzak Ostadar Gure etxea taldeari.

PILOTA.-

Solano eta Landa trinket finaletan

Finalerdietan, Solanok Azpiroz garaitu zuen 35-31 eta Landak 40-8 Esnaolari

Intzako Aritz Solano eta Usurbil taldean dabilen Mikel Landa herritarra Gipuzkoako trinket txapelketako finaletan izango dira larunbatean, Iruran. Aritzek Urnietako Mikel Imaz izango du aurrez aurre eta Mikel Landak berriz, Astigarragako Xabi Barandiaranen aurka jokatuko du.

TXINTXARRI

Lehengo larunbatean Iruran trinket jaialdi ederra izan zen. Gipuzkoako txapelketako finalerdiak izan ziren eta hauetan bi lasarteorriar izan ziren lehiak, jubenil mailan Aritz Solano Intzako kidea eta senior mailan, Usurbileko taldean jokatzen ari den Mikel Landa. Arerioak gaintu zituzten biek eta larunbatean txapela izango dute jokoan.

Aritz Solano Intzako jokalarik gazteak Oiarpeko Azpiroz zion aurka jokatu zuen jubenil finalurrekoa. Herritarrak justu irabazi zuen 35-31.

Joxe Felix Solano Intzako entrenatzaileak aipatu digunez, "Partida gogorra izan zen eta espero genuena gertatu zen. Sakearekin Oiarpeko jokalariek errenta lortu zuten, 9-0".

Partida ez zen Lasarte-Oriako gaztearen alde joan. Honela 9-4, 17-4 eta 21-9 izan ziren partzialak.

Norgehiagokaren azken zatian, aldiz, Aritzek sakearekin tanto ugari egin eta jokoan nagusi izatea lortu zuen. Ondorioz, tartea txikitu eta 23-21 irabazten jarri zen.

"Hemendik aurrera partida berdindu izan eta biek egin zituzten tantoak. Tanto ederrak eta lan handikoak ikusi ziren," aipatu du Intzako entrenatzaileak. 28-31 ean Aritzek sakea lortu eta ez zuen hutsik egin, partida bereganatu zuen.

Landak erraz

Mikel Landak berriz, 40-8 irabazi zion Esnaolari, Behar Zana taldeko kideari.

Partida honetan ez zen lehiarik izan, arerioak eskuekin arazoak zituela agerian geratu baitzen partidako



Mikel Landa eta Aritz Solano txapelketako finalerdiak jokatuko baino lehen. T. VALLES

lehen minutuetan. Ondorioz, Mikel 28-8 aurreratu zuen markagailuan.

Orduan Billabonako gazteak partida uztea erabaki zuen eta honela, Usurbilen jokatzen ari den herritarrak finalerako txartela lortu zuen.

Finalen jaialdia

Gipuzkoako trinket txapelketako finalak larunbatean, urtarriaren 18an, jokatuko dituzte Ametsa trinketan.

Jaialdia 15:15ean hasiko da. Maila desberdinetako finalak izango dira honetan eta Aritz eta Mikelen partidak laugarrena eta bosgarrena izango da. "Aritzek 17:00ak aldera jokatuko duela uste

dugu eta ondoren, Mikelen txanda izango da" aipatu du Joxe Felixek.

Aritzek Urnietako Mikel Imazen aurka jokatuko jubenil mailako partida.

Partida zaila dela jakinarazi du Intzako entrenatzaileak, "jokalarik osoa da Urnietakoa eta trinketa ongi menderatzen du, baina Aritzten ilusio, duintasuna eta fisikoarekin aurre egiten saiatuko gara".

Seniorretan berriz, Mikel Landa eta Mundarrok taldeko Xabi Barandiaranen arteko norgehiagoka izango da.

Intzako lagunek herritarrak gonbidatzen dituzte Irurara hurbildu eta pilotariak animatzera.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 18
Michelin, 10:30etan
Ostadar-Mariño *Jubenilen Ohorezko maila*
Harane, Usurbil, 11:30etan
Usurbil-Ostadar *I. infantil*
Michelin, 12:15etan
Ostadar-B-Kostkas C *I. kadetea, kopa*
Michelin, 15:00etan
Ostadar-Aizkorri Goierrri
Infantil Txikia, partaidetza
Asti, Zarautz, 15:30etan
Zarautz-Ostadar *Erregional Ohorezko maila*
Plazeta, Lezo, 15:30etan
Allerru-Ostadar *Emakumezkoen Liga*
Herrera, Donostia, 15:30etan
Asoleus-Texas Lasartearra
I. Erregionala, kopa
Michelin, 17:00etan
Ostadar-Santutxu
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Igandea 19

Michelin, 10:30etan
Ostadar-B-Oriko *I. infantil*
Puio, Donostia, 12:00etan
Vasconia-Ostadar *I. kadetea, kopa*
San Miguel, Mutriku, 16:30etan
Burumendi-Ostadar *I. Jubenila, igoera*

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 17
HERRIKO TXAPELKETAKO
19:45ean, El Punto-Urdaneta H.K.
20:45ean, Balardi-Aritz
Resti frontoia, Zaldibi, 22:15ean
Tellatuberri Zaldibi-ISU Leihoko
Gipuzkoako Liga
Larunbata 18
HERRIKO TXAPELKETAKO
09:15ean, Txindoki-Indaux
10:15ean, Viña del Mar-Trumoi
11:15ean, Arkupe-Buenetxea
12:15ean, Izarra-Izkiña
Eskolapioak, Tolosa, 19:00etan
Tolosala Hirukide-Aldaz H.K.
Nazional III. maila

SASKIBALOA

Larunbata 18
Kiroldedia, 16:00etan
Ostadar SKT-
Añorga Kadete A
Nesken kadete maila, errendimendua



PILOTA

Ostirala 17
Eskoriatza, 19:00etan
Eskoriatza I-Intza
Eskuz binaka, I. seniorra. Udaberri txapelketa.
Larunbata 18
Gurea, Azkoitia, 10:00etan
Azkoitia-Intza
Eskuz binaka, II. kadetea. Udaberri txapelketa.
Ametsa trinketea, Irura, 15:15ean
Intza-Urnieta *Eskuz banaka jubenila.*
Trinketa txapelketa. Finala
Ametsa trinketea, Irura, 15:15ean
Urubil-Mundarro *Eskuz banaka seniorra.*
Trinketa txapelketa. Finala

ATLETISMOA

Larunbata 18
Anoetako belodromo, 10:30etan
Landaberri eta Sasoea-Zumaburu
ikastetxeok gazte txapelketak eskolarteko
alebin eta infantil mailako
partehartzeko askeko proba dute.

Igandea 19

Beasain, 12:30etan
Herriko hainbat atletek Garingo

II. Mendi Lasterketa herrikoian
parte hartuko dute.

IGERIKETA

Larunbata 18
Hernani, 16:00etan
Buruntzaldea IKT-ko benjamin eta
alebin mailako igerilarietako Kirol
Zehaztasun Ligako 2. jardunaldian
parte hartuko dute.

JUDO

Larunbata 18 eta igandea 19
Tortosa, egun osoa
LOKEko Mario Garrido juniorrak
Espainiako Kopako jardunaldia du.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 18
Atsokabar parkea, 11:00etan
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako
infantil eta alebinek saioa dute.
Antonio Elortza belodromo, 15:45ean
Buruntzazpi txirrindularitza
eskolako gazteek pistako
Gipuzkoako trofeo jardunaldia dute.

ERRUGBIA

Larunbata 18
Asti-txiki, Zarautz, 11:00etan
Beltzak Ostadar Jalai-Ejea
Eskolarteko Infantilak
Bilbo, 12:00etan
Bilbao-Beltzak Ostadar Gure Etxea
Euskal Liga, kadeteak
Asti-txiki, Zarautz, 12:00etan
Beltzak Ostadar Jalai-Ejea
Eskolarteko Infantilak
Asti-txiki, Zarautz, 15:00etan
Beltzak Ostadar Jalai-Ejea
Infantil federatua
Asti-txiki, Zarautz, 16:30etan
Beltzak Ostadar Jalai eskolako
alebinek hiruko txapelketa dute
Zarautz eta Ejearen aurka.

Igandea 19

Michelin, 09:00etan
Beltzak Ostadar Jalai eskolako
entrenamendua dago.

BOLA-JOKOA

Igandea 19
Olaberri, 09:30etan eta 16:00etan
Ostadar SKT-k Taldeko
txapelketaren bigarren saioa du.

Agenda

Larunbata 18, 18:00etan, Manuel Lekuonan



Animaliek ere irakasten dute

Haurren gozamenerako "Kibubu" antzerkia eskainiko du Marie de Jongh konpainiak. Keinu bidezko antzerki hau, 5 urtetik aurrerako haurrentzat gomendatua dago. Xebas eta Coco pailazoen gorila bat izan nahi dute haien ikuskizunean. Gorila erosten dute sinistuta daudelako animaliarri numeroak erakutsiz gero, arrakasta lortuko dutela. Baina pailazoen inoiz ahaztuko ez duten ikasgaia jasoko dute. Sarrera, leihatilan 3 euro; internet bidez, 2,7 euro. Euskaraz.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Urtarrila bukaera arte

Paco Altuna herritarrek Lasarte-Oriako hainbat eraikinetako maketak erakusgai jarri ditu.

Andoain

Dantza

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 17, 21:30ean

Circle of Trust & Logela multimedia konpainiak "Divenire" ikuskizuna eskainiko du. Sarrera, 10 euro.

Astigarraga

Antzerkia

KULTUR-ETXEAN

Larunbata 18, 20:00etan

Glu-glu produkzioak "La última oportunidad" lana eskainiko du. Sarrera, 6 euro.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 19, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Jelly T Tarzan eskasa" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,20 euro.



Igandea 19, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Blue Jasmine" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,40 euro.

Ostirala 24, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Vivir es fácil" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan 4,70 euro; internet bidez, 4,30 euro. Gaztelaniaz.

Larunbata 18, 23:00ean

"The Icer Company"-k kontzertua eskainiko du. Ostean, DJ Set-ek Al Alegria saioaz gozatu ahaliko da.

Larunbata 25, 21:30ean

Metal jaialdia izango da "Unbreath" eta herriko "Gabezia" taldeen eskutik. Sarrera, 4 euro.

Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 17, 23:00ean

"Trifulca Posse"-ko DJ Syr-ek hip-hop eta funky doinuez betetako saioa eskainiko du.

Irakurle-Txokoa

VILLA MIRENTXU

Asteartea 21, 18:30ean

Alice Munro Nobel saridunaren "Zorion handiegia" aztertuko dute Uxue Alberdiren laguntzaz.

Aurkezpena

AEK EUSKALTEGIA

Asteartea 21, 19:00etan

Lur Denok kooperatibaren aurkezpena egin eta produktuen banaketari buruzko azalpenak eskainiko dituzte.

Hernani

Erakusketa

BITERI KULTUR-ETXEA

Urtarrilaren 21era arte

"Condor legioak eragindako Gernikaren suntsipena" erakusketa ikusgai.

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da urtarrilaren 24an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Odol-ateratzeak

Odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan urtarrilaren 27an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzte, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxe 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat iz-

tearena da, bertakoa eta ekologikoa. Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira baratzi eta frutak, garaian garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gустuko dutenentzat atek zabalki dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira. Erketz-eko Lagunak taldeak asteartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz, ostegunetan. Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera, ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dutela gogoratu dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi duten guztientzako 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Hemeroteka

Duela 1093 ale

Trenaren iragana eta etorkizunari buruz hitz egin genuen TXINTXARRI aldizkarian 1995 urteko azken alean.

Erreportaje horretan, garai batean Lasarte-Oriatik igaro ziren trenak, Plazaolako tren eta kostaldekoa, eta tranbia izan ziren mintzagai. Hiru garraio bideen historia eta hainbat pasadizo azaldu genituen bertan.

Plazaolako trenak esate baterako, Berastegi eta Andoain lotzen zituen. Trenbideak 22 kilometroko luzera zuen eta ez zuen herri garrantzitsurik zeharkatzen. 1914ean inauguratua izan zen, baina gutxira Plazaolako meategietako ustiaketa geldiarazi eta trafikoa gutxitu zen. 1953 urteko uholdeak kalte handiak sortu zituen bidean eta berritzatzeko diru ezak zerbitzua betirako kentzea ekarri zuen.

Bestalde, Kostako trenaren ere izan zen. Egun Euskotreneko geldidunea bada ere, garai batean tren Lasarte-Oria erdiraino iristen zela azpimarratzen da erreportajearen, "Pintore etxe aurretik, (gaur Landaberri Garaikoa) etxe ikastola) eta Errotergi tartetik pasatzen zen". Merkantziatarako bakarrik erabiltzen zen zatia eta egunean behin, zaldi lasterketak eta antzeko ospakizunik ez bazen behintzat. Orduan, maizago izaten ziren trenak.

Tranbiari dagokionez, Donostia eta Tolosa arteko bidea egiten zuen. Bide bakarra erabiltzen zuen eta joan-etorriak 60 zentimo balio zuela aipatzen da. Abiadura handia ibiltzen omen ziren eta ez omen zituen jende gehiegik erabiltzen. Urteen poderioz, hauen lekua egun ezagutzen ditugun autobusek hartu zuten.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Iñigo Altuna Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako kidea

“Denboraldiari buelta eman diot”

Iñigo Altuna gaztea Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kidea, urtarrilaren 11 eta 12an, Espainiako txapelketan parte hartu zuen Euskadiko selekzioarekin. Maila honetako bere lehen txapelketa izan zen eta hamabosgarren postuan amaitu zuen. Iñigorekin bildu eta aurtengo ziklo-kros denboraldia, Espainiako txapelketa edo etorkizunari buruz mintzatu gara.

Nerea EIZAGIRRE

Hamabost urte dituen lasarteoriatar gaztea dugu Iñigo Altuna. Txirrindularitza txiki txikitaki bizi izan du etxean eta herritarrei kirol hau probatzeko gonbita egiten die, “futbolaz aparte beste kirol batzuk baitaude”. Aurtun ziklo-kros denboraldiari amaiera ederra eman dio, Euskadiko Selektzioarekin Segorben antolatuta Espainiako txapelketan izan zen lehian.

Denboraldi gogorra izan duzue?

Denboraldia urriak 13an hasi ginen eta orain bi lasterketa geratzen zaizkigu. Bata Frantziako Gipuzkoako selekzioarekin eta bestea Euskadi mailako azken txapelketa izpasterren.

Ez da denboraldi oso ona izan. Entrenatzailea hil zitzaizgun eta ondorioz emaitzak kaxkarragoak izan dira. Baina laguntzarekin taldea, taldeki-deak, gurasoak, lagunak lortu

dut denboraldiari buelta ematea eta txapelketa garrantzitsuenetan ongi ibiltzea.

Bigarren postua lortu nuen Araban duela bi aste, Ormaiztegin laugarren izan nintzen eta Espainiakoetan hamabosgarren. Ea nola joaten diren azken bi lasterketak. Gaizki zihoa denboraldiari buelta eman diogu.

Lasterketak ere gogorrak izan dira...

Denboraldi honetan lasterketa gogorrak izan dira eguraldia dela eta. Ez dira asko izan. Gehienak lehorrak izan dira eta azkarak. Baina gogorrak izan direnetan asko kosta izan da aurrera jarraitzea lokatz asko, elurra, euria horrek lasterketan ere ondorio du... Denetara ohitu behar.

Euskal Herrian ez ezik, Espainia mailan ere lehiatu zarete denboraldi hone-tan...

Bai, Kopa Federazio lehiaketan, Burgos, Kantabria, Astu-

rias... Valentzian ere izan ginen duela hilabete. Lasterketa hauetan ere hamaikagarren, hamabigarren eta hamabosgarren postuetan ibili nintzen.

Beste lasterketetan zorte txarra izan dut erorikoekin. Gaixorik zoazenean ere kostatzen da eta beste lasterketak gaizki egin nituen.

Aipatu duzun legez, Espainiako txapelketan izan zara lehian Euskadiko selekzioarekin. Zer moduzko esperientzia izan da?

Nire lehen aldian, bai Euskadiko selekzioarekin lehiatzen, baita Espainiako txapelketan parte hartzen ere. Esperientzia polita izan da.

Bi egun lehenago joan ginen ibilbidea ezagutzera. Castellón Segorben izan

zen Interneteko bideoetan ikusita oso txarra zela zirudien.

Oso lehorra zen, ez zegoen lokatzik eta hemengo korrikalariak ez daude horretara ohituak. Baina aldapa gogorrak zituen eta hori izan zen Euskadiko selekzioak lortu zituen emaitzen zergatia.

Hamabosgarren izan zinen...

Emaitza hori ondo dago. Lehen itzuli txarra egin nuen. Denak batera ateratu ginen eta kosta egiten zen aurreratzea. Baina ibilbideak zuen gogortasuna zela eta, jendea aurreratzen joan ginen. Azkenean hamabosgarren izan nintzen.

Lehenengo buelta hobeto egin izan banu, lehen hamarretan sartzeko aukera nuen. Baina lasterketak horrela dira eta horrelako gauzak gertatzen dira.

Ziklo-kros denboraldi amaitu eta errepidea duzue...



Iñigo Altuna Ziklo-kros lasterketan buru belarri lehian.

I. ALTUNA

Ziklo-krosa errepideko denboraldia prestatzeko da. Martxoan hasiko gara serioago errepidean lanean eta abuztutara arte izango gara lanean.

Gero atsedena eta maila berrian, jubenilera igotzen naiz, Euskadiko mailako txapelketak egingo ditut bakarrik.

Espainiako txapelketetara joatea oso zaila izango da, handiekin izango naizelako. Denboraldi polita egingez gero, aukerak daude. Izan ere, selekzioak lehen urteko pare bat jubenil deitzen ditu. Zaila dago, baina borrokatuko da.

Eta etorkizunean errepidean edo ziklo-krosean aritzeko asmoa duzue?

Errepidea da orain helburu nagusia. Baina errepidean taldeak desagertzen ari dira eta auskalo urte batzuk barru nola dagoen gauza.

Bestalde, hemendik aurrera, hau da, jubenil mailatik aurrera, afizionatu mailan talderik aurkitzen ez dudala ikusten badut, ziklo-krosa egiteko asmoa dut.

Ziklo-krosa hor dago eta gustatzen zaidan gauza da. Aukera daude ziklo-krosean ongi joateko. Beraz, errepideko aukera gaizki badao ikusiko dugu.



Lehenengo egunetik hite egingo duzu, erabileran oinarritutako metodologiari esker.

aek
Euskara praktikoa

ikasi euskara
eman izena **aek-n**
Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak www.aek.org



- AUTOIKASKUNTZA MINTZA-SAIOAREKIN
- EUSKARAKO AGIRIAK (1,2 eta 3.) EGA
- EUSKALDUNTZEKO MAILA GUZTIAK
- ORDUTEGIAN MALGUTASUNA



Geltoki kalea 17, beheka • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863 lasarte@aek.org